BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, EUSKADIKO ARTXIBATEGI HISTORIKOKO DOKUMENTU-GORDAILUETARAKO APALATEGI LERRAGARRI BIKOITZAK ETA ARTXIBO APALATEGI BIKOITZAK ETA BAKUNAK EROSTEKO HORNIDURA-KONTRATUARENA.

A. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratu honen objektua da apalategi lerragarri bikoitz eta apalategi finko bikoitz eta bakunak hornitzea, muntatzea eta zerbitzuan jartzea, sotoko —3. solairuko 3. gordailurako eta Euskadiko Artxibo Historikoko sotoko —2. solairuko 6. gordailurako, Bilboko María Díaz de Haro kaleko 3. zenbakian (48013).

Bisita-egun bat ezarriko da, hala eskatzen duten enpresek horniduraren xede diren gordailuetara sartzeko aukera izan dezaten, neurriak hartu eta proposamena *in situ* aztertzeko.

B. HORNIDURAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

1. Eman beharreko hornigaiak eta haien ezaugarriak, zehazki, honako hauek izango dira:

Sotoko -3. solairuko 3. gordailua

Apalategi lerragarri bikoitzak	Apalategi finko bikoitzak	Apalategi finko bakunak
27	1 (erdigunean)	2 (alboetan jarrita)

Gordailuaren guztizko azalera, gutxi gorabehera	Gordailuaren luzera erabilgarria, gutxi gorabehera	Gordailuaren zabalera erabilgarria, gutxi gorabehera
169 m^2	27 metro lineal	4,2 m (alboetan izan ezik, non 3,85 m-ko zabalera dagoen, zorroten baten ondorioz)

Apalategi lerragarri bikoitzak (ALB): egitura eta edukiera			
Atal kopurua ALB bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua ALB bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
6 (3+ 3)	6 apal, 131 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	36 (18+18)	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 4.200 mm luze.

Apalategi finko bikoitzak (AFBik): egitura eta edukiera			
Atal kopurua AFBik bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua AFBik bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
6 (3+3)	6 apal, 131 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	36 (18 + 18)	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 4.200 mm luze.

Apalategi finko bakunak (AFBak): egitura eta edukiera			
Atal kopurua AFBak bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua AFBak bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
3	6 apal, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	18	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 3.850 mm luze.

Sotoko -2. solairuko 6. gordailua

Apalategi lerragarri bikoitzak	Apalategi finko bikoitzak	Apalategi finko bakunak
27	1 (erdigunean)	2 (alboetan jarrita)

Gordailuaren guztizko azalera, gutxi gorabehera	Gordailuaren luzera erabilgarria, gutxi gorabehera	Gordailuaren zabalera erabilgarria, gutxi gorabehera
138 m^2	28 metro lineal	3,550 m

Apalategi lerragarri bikoitzak (ALB): egitura eta edukiera			
Atal kopurua ALB bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua ALB bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
6 (3+3)	Bi ataletan: 6 apal, 116 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm). Atal batean: 6 apal, 96 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	36 (18 + 18)	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 3.500 mm luze.

Apalategi finko bikoitzak (AFBik): egitura eta edukiera			
Atal kopurua AFBik bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua AFBik bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
6 (3+3)	Bi ataletan: 6 apal, 116 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm). Atal batean: 6 apal, 96 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	36 (18 + 18)	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 3.500 mm luze.

Apalategi finko bakunak (AFBak): egitura eta edukiera			
Atal kopurua AFBak bakoitzeko	**Atal bakoitzeko apal kopurua**	**Guztizko apal kopurua AFBak bakoitzeko**	**Apalategien neurriak**
3	Bi ataletan: 6 apal, 116 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm). Atal batean: 6 apal, 96 cm bakoitzak, eta goialdeko ixte-apal bat ere bai (apalen tarteko gutxieneko altuera: 280 mm).	18	2.150 mm garai X 400 mm sakon X 3.500 mm luze.

2. Apalategi mugikor lerragarrien sistemaren egitura taxutzeko, bastidoreak erabiliko dira, soldatuak, eta ez torlojuz lotuak.

3. Sistemaren gurpilek hauek jasateko gaitasuna izango dute, irristatzeari eragiteko moduko deformaziorik gabe: gurpil bakoitzeko, 1.800 kg-ko karga estatikoa eta 2.200 kg-ko karga dinamikoa.

4. Apalategi mugikorrek sei maila eta goialdeko tapa izango dituzte Apal bakoitzaren altuera modu independentean erregulatu ahal izango da. Apalategiek metro linealeko 150 kg-ko kargak jasan behar dituzte, deformazio nabarmenik gabe. Horretarako, apalak gotortzeko omega soldatu batekin indartuko dira. Gainera, atzeko tope bat izango dute, kutxak irristatzea eragotziko duena.

5. Apalategi guztiak 280 mm-ko (altuera) x 390 mm-ko (sakonera) artxibo-kutxak gordetzeko diseinatuta egongo dira.

6. Apalategi mugikor lerragarrien lerratze-sistema mekanikoa izan daiteke, murrizketa hirukoitzaren mekanismoarekin. Hala ere, prestaziorako balio

dezakeen edozein lerradura-sistema onartu ahal izango da.

7. Adjudikaziodunak hornitu eta jarriko du sistema instalatuko zaion plataforma. Plataforma apalen oineraino iritsi behar duten orgentzat irisgarria izango da. Armairu trinkoek oinarri duten plataformaren gainean altzairu trinko kalibratuzko gidak sartuko dira. Gidak nibel optikoaren bidez egiaztatuko dira, eta doitasuna 20 metroko 1 mm izango da gutxienez. Apalategiak zuzenean instalatzeko moduan daude gordailuak, aurretik ez da egokitze-lanik egin behar.

8. Apalategi mugikor irristakorren egitura, bastidore, erretilu eta osagarri guztien azaleko akabera RAL eskalako «1018 Zink-horia» tonu normalizatuan margotuko da. Eskala hori Artxiboko gainerako gordailuetan jada instalatuta dauden apalategietan erabiltzen da (argazkia erantsi da).

9. Apalategi guztiek Europako arau hauek bete beharko dituzte: EN 15629 araua, apalategi metalikoetan biltegiratzeari buruzkoa – Biltegiratzeko ekipamenduen zehaztapenak eta EN 15878 araua, apalategi metalikoetan biltegiratzeko sistemei buruzkoa – Terminoak eta definizioak, edo baliokideak.

C. ENTREGATZEKO BALDINTZAK ETA BERMEA

1. Kontratuaren objektuko prestazioa emateko baldintzak.

Enpresa adjudikaziodunak betebehar hauek ditu:

- Hornigaiak ibilgailu egoki batean garraiatzea, eta zamalanak egitea.
- Hornigaien muntaketa eta instalazioa, eta kontratuaren botere adjudikatzaileak egiaztatu beharko du baldintza teknikoak betetzen direla.
- Kaxak, bilgarriak, plastikoak eta, oro har, instalazioan sortzen den beste edozein material jasotzea.
- Laguntza teknikoa eta horniduraren mantentze-lanak bermealdian.

2. Bermealdia.

Hornigai akastunik bada, adjudikaziodunak ordezkatu egin beharko du. Bermealdia 24 hilabetekoa izango da, hargatik eragotzi gabe lizitatzaileak eskaintzen duena, halakorik egiten badu. Horniduraren entrega eta instalazioaren ziurtapenetik eta baldintza teknikoak betetzen direnetik hasiko da epearen zenbaketa.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 17a.

Stua./Fdo.: José Ignacio Martínez de Luco[1]
Euskal Kultura Ondarearen Zentroko Arkitektoa

[1] Jatorrizkoa sinatua espedientean dago